

## **SAREren Bilboko manifestazioan parte hartzeko deia egiten diegu langileei**

*Bada garaia euskal presoek pairatzen dituzten urraketei amaiera emateko. Bada garaian presoan aferan adostasunak eraikitzeko. LABek prestasuna erakutsi nahi du elkarrekin aurrera egiteko eta urtarrilaren 13an Bilboko kaleak betetzeko deia egin du.*

Preso eta iheslariak etxera ekartzeko borroka indartzearen inguruan, aipatzekoa da Parisen abenduaren 9an izandako manifestazio jendetsua, "Orain presoak" lemapean izan zena. Bilboko datorren larunbatekoa izango da hurrengo hitzordu garrantzitsua, SAREk deituta eta "Prest gaude" lemarekin.

Manifestazioa 17:30ean abiatuko da Bilboko La Casillatik. Garbiñe Aranburu idazkari nagusia buru duen LABen ordezkaritza batek manifestazioan parte hartuko du. LABek langileei manifestazioan parte hartzeko deia egiten die.

Presoen gaiaren inguruan, Ipar Euskal Herrian adostasun zabalak eraiki dira esparru politikoan eta jendarte zibilaren inplikazioa ere ereduagarria da. Honek Frantziako Gobernuarekin interlokuzio bat zabaltzea posible egin du eta hasi dira mugimenduak. Frantziako Gobernuaren jarrera aldatzea lortuko balitz, areagotu egingo litzateke Espainiakoaren gaineko presioa.

Espainiako Gobernuak euskal presoekiko salbuespen eta mendeku politikan ez du aurrera urrats bakar ba ere eman. Preso gaixoena da horren adierazlerik nagusia. Euskal Herrian adostasun zabala lortu da gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea eskatzeko. Hainbat ekimenen artean aipatzekoa iruditzen zaigu Foro Sozialaren eskutik, EAEn uztailaren 5ean egin zen adierazpen sindikal eta agerraldia; horren hurrengo urratsa izan da, lehen aldiz gehiengo sindikalarekin batera UGT ere agertu izana Ibon Iparragirre askatzeko mobilizazio batean. Nafarroan ere sindikatu guztiok egin dugu bat eskakizun horrekin.

Aurrera begira, gaixo diren presoekin lortutako adostasun bera lortzen saiatuko gara presoan Euskal Herriratzeari eta bestelako salbuespen neurrien ezabaketari dagokionez, preso eta iheslari guztiak etxeratzeko bidean. Bide honetan, garrantzia berezia hartzen du Foro Sozial Iraunkorrek Irunen urtarrilaren 26 eta 27an preso eta iheslarien inguruan antolatutako saioak.